

Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala

46. zenbakia

Data 2005-03-09

5408 orria

7 UDAL ADMINISTRAZIOA

DONOSTIAKO UDALA

Merkataritzako Aholkulari Kontseiluaren funtzionamenduari buruzko erregelamendua. Behin betiko onspena.

DONOSTIAKO UDALA

Ekonomi Garapen, Enplegu eta Merkataritzako Zuzendaritza

Behin betiko onartzea Merkataritzako Aholkularitza Kontseiluaren funtzionamendu araudia.

2005-ko otsailaren 22-ko Donostiako Udalbatzak ondorengo akordioa onartu zuen:

«1. Jendearen aurrean jarritako epean izandako alegazio batzuk onartzea eta beste batzuk ez onartzea, akordio honen azalpenean zatian aipatzen den zentzuan.

2.Merkataritzako Aholkularitza Kontseiluaren funtzionamendu araudia behin betiko onartzea, eta testu osoa argitaratzea Gipuzkoako Aldizkari Oficialean».

Ados ez dagoenak bi hilabete du errekurtsioa jartzeko Euskal Herriko Auzitegi Nagusiaren Administrazioarekiko Auzietarako Sailaren aurrean.

Esandako epea argitalpen hau eta hurrengo egunetik aurrera hasiko da.

Donostia, 2005eko martxoaren 3a—Euken Sesé Sarasti, Ekonomi Garapen, Enplegu eta Merkataritzako Zuzendaria.

(2035)

DONOSTIAKO UDALAREN MERKATARITZAKO AHOLKULARITZA KONTSEILUAREN ARAUTEGIA

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.Eraketa eta izaera juridikoa.

Merkataritzara arloa ordezkatzeko duten elkarteak, Donostiako udalaren eta merkataritza jardueran esku-hartzen duten eragileak arteko lankidetzara eta etengabeko komunikazioa beharrezkoa denez, ezinbestekoa da horiek guztiak barne hartuko dituen Merkataritzako Aholkularitza Kontseilu bat eratzea, hiriko merkataritza sektorea modernizatzeko eta suspertzeko helburua izango duena.

Sektoreko parte hartzeko erakundea izateko sortu da kontseilua, eta kontsulta izaera izango du. Toki Erakundeak Antolamendua, Funtzionamendua eta Erregimen Juridikoa arautzeko Erregelamenduan eta Udal Arau Organikoetan xedatutakoaren arabera sortu da. Kontseiluaren funtzioak hauek izango dira: Informazio, proposamen, kontsulta eta aholkularitza erakundea izatea, tokiko merkataritza hobetzen lagunduko duten politikak eta ekimenak diseinatu eta abian jartzeko; eta politika eta

ekimen horien jarraipena eta ebaluazioa egitea.

2. artikulua.Helburuak.

Merkataritzako Aholkularitza Kontseilua helburu hauekin eratzen da:

- 1.Merkataritza sektoreko eragile guztien topaleku izateko. Bertan Donostiako merkataritza jarduera aztertu eta eztabaidatuko da, eta elkarlana bultzatuko da sektorearentzako egokienak diren udal ekimenen proposatzeko, aztertzeo eta garatzeko.
- 2.Hiriaren merkataritza jardueraren sustapenean interesa duten eragile publiko eta pribatuen arteko lankidetz, elkarlana eta koordinazioa bultzatuko duen organismoa izatea.
- 3.Donostiako merkataritza sarea indartu eta hobetuko duten planen, programen eta ekintzen igorle eta jasotzaile izango den organismoa izatea.

3. artikulua.Kontseiluaren funtzioak.

- 1.Merkataritza arloan eskuduna den udaleko organo edo sailari merkataritza jarduera sustatzeko udalerrri mailako ekimenei buruzko orientazioa ematea; batik bat, kalitateari, prestakuntzari, lanerako sarbideari eta lanbide birziklapenari dagokionez.
- 2.Merkataritza arloan eskuduna den udaleko organo edo sailari hiriko txikizkako merkataritzaren egoera eta bilakaera aztertuko dituzten txostenak eta azterketak egiten eta zabaltzen laguntzea.
- 3.Udalari sektorearen berariazko arazoei buruzko informazioa ematea, eta lotesleak izango ez diren konponbideak eta alternatibak proposatzea. Proposamen horiek udaleko organo eskudunari igorriko zaizkio azter ditzan.
- 4.Udalari laguntza ematea hiriko merkataritza sustatzeko antolatuko diren kanpainetan.
- 5.Erakunde publiko eta pribatuek hiriko merkataritzaren alde egingo dituzten jardueren koordinazioa sustatzea, laguntzea eta bultzatzea.
- 6.Kontseiluari dagozkion gaiei buruz udalak hartzen dituen erabakien jarraipena egitea.

II. KAPITULUA

KONTSEILUAREN ANTOLAKETA ETA FUNTZIONAMENDUA

4. artikulua.Kontseilua osatuko duten organoak

Merkataritzako Aholkularitza Kontseiluak organo hauek izango ditu:

- a)Lehendakaritza.
- b)Kontseiluaren osoko bilkura.
- c)Lan batzordeak.
- d)Idazkaritza.

1. ATALA. Lehendakaritza

5. artikulua. Lehendakaritza.

1. Udalbatzako alkateak izango du lehendakaritza.

2. Alkateak merkataritza gaietan eskuduna den organoko edo saileko ordezkari den zinegotziari eskuordetu diezaioke lehendakaritza.

6. artikulua. Lehendakaritzaren funtzioak.

a) Kontseilua ordezkatzea.

b) Ohiko eta ez ohiko bilkurak deitzea.

c) Interesgarriak irizitako udal teknikariak eta kanpo aholkulariak gonbidatzea.

d) Gai zerrenda onartzea.

e) Bilkuren buru eta horien moderatzaile izatea.

f) Herritarren parte hartzea bermatzea.

g) Kontseiluaren ekimenak, txostenak eta proposamenak udaleko gobernu organoei helaraztea.

h) Merkataritzako Aholkularitza Kontseiluak udaleko gobernu eta kudeaketa organoekin, merkataritza arloan eskudunak diren erakunde ofizialekin eta udaleko sail eta zerbitzuekin izango duen etengabeko harremana koordinatzea.

i) Lehendakari karguak berezkoak dituen beste funtzio guztiak erabiltzea.

2. ATALA. Osoko bilkura

7. artikulua. Kontseiluaren osoko bilkura.

1. Osoko bilkura izango da Kontseiluaren organo gorena, eta hura eskubide osoz osatzen duten pertsonak osatuko dute. Honako hauek izango dira bertako kideak:

a) Lehendakaria, alkatea.

b) Merkataritzan eskuduna den udaleko ordezkariaren edo erakunde autonomoaren buru den zinegotzia.

c) Donostiako merkatarien kolektiboak formalki ordezkatzeko dituzten erakunde, elkarte eta entitateen ordezkari bana; betiere, aurretik eskaera egin eta Kontseiluak onartuz gero. Pertsona horiek elkartearen hautagarritasun eta ordezkatzeko baldintza orokorrak bete beharko dituzte, eta elkarte horietako zuzendaritza organoek aukeratu beharko dituzte.

d) Udaleko alderdi politikoen ordezkari bana.

e) Beste erakunde batzuen ordezkari bat; besteak beste, Eusko Jaurlaritza, KTE, Merkataritza Ganbara, Kontsumitzaileen Elkartek, eta abar.

f) Gonbidapenez –gehienez hiru lagun, boto eskubiderik gabe, eta urtean-urtean aldatu daitezkeela– merkataria banakoei, merkatarien elkarte edo erakunderen bateko bazkide izan ala ez izan.

Horretarako, ezinbesteko baldintza izango da Merkataritzako Aholkularitza Kontseiluaren Batzarrean parte hartu nahi izatea, eta parte hartze horrek balio osagarria ematea batzarrari, gonbidatu den horrek balio handia, izaera berritzailea, eskarmentu handia edota etorkizun sena duelako.

2. Lehendakaritzak egoki irizten dituen udal teknikarien edo kanpoko aholkularien parte hartzea eska dezake. Parte hartzaile horiek hitz egin ahal izango dute, baina ezingo dute botorik eman.

8. artikulua. Osoko bilkurako kide izaera galtzea

Egoera hauek emanez gero, Kontseiluko kide izaera galduko da:

- a) Kontseilua desegitea.
- b) Norberak erabaki hori hartu, eta Kontseiluari behar bezala jakinaraztea.
- c) Ordezkatutako erakundeko gobernu organoek hala erabakitzea.
- d) Arautegi honetan jaso eta Kontseiluak oso larriak iritzitako jarduerak burutzea.
- e) Kontseilua osatzeko hiru bilkuratara ez bertaratzea, arrazoirik eman gabe, baldin eta gonbidapenez izendatutako kidea bada.

9. artikulua. Ordezkapena eta ordezkaritza.

1. Merkataritzako Aholkularitza Kontseiluko organoak osatzen dituzten kide titularrak ordezkatu ahal izango dira, gaixotasuna edo behar bezala justifikatutako beste kausaren batengatik. Ordezkatuek erabakiko dute, formalki, nork ordezkatuko dituen.

2. Osoko bilkurako kideek, justifikatutako arrazoirik gabe, elkarren segidako hiru bilkuretara joaten ez badira, kargua utzi beharko dute eta ordezkatuak izango dira.

10. artikulua. Kontseiluaren osoko bilkuraren funtzioak.

1. Kontseiluaren osoko bilkura osatzen duten pertsonak honako jarduera hauek egin ahal izango dituzte:

- a) Bilkuretako eztabaidetan parte hartu.
- b) Azterketak eta analisiak egiten laguntzea, eta merkataritzako proposamenak egitea. Azken horiek aktan jasoko dira eta Kontseiluak aztertu egingo ditu.
- c) Kontseiluaren idazkaritzaren bidez, gai zerrendan jasotzen diren gaiei buruzko aurrekariak, informazioa edo dokumentazioa eskatzea.
- d) Proposamenak lantzea, gai zehatzen bat aztertzea eta informazioa bilduko duen pertsona edo lan batzorde bat izendatzea. Lan batzorde edo batzorde tekniko horiek Kontseiluko osoko bilkurari emango diote egindako jardueren berri.
- e) Kontseiluak eratzen dituen lan batzordeetan edo batzorde teknikoetan parte hartzea.
- f) Galderak eta eskariak egitea.

g)Kontseiluaren barne funtzionamenduko araudia onartzea.

h)Kontseiluak egindako jardueren urteko memoria onartzea.

i)Kontseiluko kide berrien sarrerari buruzko proposamenak egitea eta informazioa ematea.

j)Kontseiluaren osoko bilkurako kide izateak berezko dituen beste funtzio guztiak garatzea.

2.Kontseiluko kideek ezingo dituzte ordezkariak funtzioak bere gain hartu; Kontseiluak, gai zehatz bakoitzerako berariazko baimenez, hori ahalbidetzen duenean izan ezik.

11. artikulua. Ohiko bilkurak

1.Merkataritzako Aholkularitza Kontseiluak hiru hilabetean behin egingo ditu ohiko bilkurak, eta ekitaldi bakoitzaren hasieran finkatuko du urteko bilkuren egutegia.

2.Ohiko bilera edo bilkuretako deialdia hori egin behar den eguna baino zazpi lanegun lehenago egin beharko da, gutxienez. Deialdiarekin batera, beti, bilkuran aztertuko diren gaien zerrenda adieraziko da, bai eta horiei buruzko dokumentazio guztia ere.

3.Deialdiak Merkataritzako Aholkularitza Kontseiluko Lehendakaritzak egingo ditu.

4.Gai zerrendan sartu beharreko gaien proposamenak Kontseiluaren idazkaritzan egon beharko du deialdia egin baino hiru egun lehenago.

5.Udaleko erregistroan egindako kanpo proposamenak edo eskariak eskuratu eta deialdian sartu ahal izango ditu Kontseiluak, bilkuretan jorra daitezten.

12. artikulua. Ez ohiko bilkurak

1.Lehendakaritzak edo haren ordezeko zinegotzigoak beharrezkotzat jotzen badu, Kontseiluaren ez ohiko bilkurak egin ahal izango dira. Ez ohiko bilkura horiek eskubide osozko kide diren pertsona guztien bi herenak hala eskatuta ere egin ahal izango dira.

2.Ez ohiko bilkuren deialdia, gutxienez, horiek egin baino 72 ordu lehenago egin beharko da.

13. artikulua. Bilkuren aurreko informazioa

Deialdiarekin batera, eta, hala badagokio, jorratuko diren gaien buruzko dokumentazioa bidaliko zaie Kontseiluko kideei.

14. artikulua. Bilkuren arautegia.

1.Merkataritzako Aholkularitza Kontseilua balio osoz eratuko da lehen deialdian bilkurara, gutxienez, hura osatzen duten eskubide osozko kideen erdia baino gehiago bertaratzen badira; eta bertaratutako kideen kopurua edozein dela ere, ordu erdi geroago egingo den bigarren deialdian.

2.Merkataritzako Aholkularitza Kontseiluak aho batez hartuko ditu, oro har, erabakiak. Kontsulta izaera duenez, kontseiluaren erabakiek ez dute ebazpen izaerarik. Bozketa egiten denean, erabakiak kontseilura bertaratu diren eskubide osozko kideen gehiengo absolutuz hartuko dira. Berdinketarik gertatuz gero, kontseiluaren presidentearen kalitateko botoak erabakiko du. Erregelamendu honetan jasotako arauen arau-hausteak oso larritzat jotzeko erabakiak kontseiluko eskubide osozko kideen 2/3aren aldeko botoz hartuko dira.

3.Ezin izango da gai bat eztabaidatu edo adostu aurrez gai zerrendan jaso ez badago, salbu kide anitzeko organuko kide guztiak bertan badaude eta gaia gehiengoaren aldeko botoarekin premiazko adierazten badute.

4.Idazkaritzak bilkura bakoitzaren akta jasoko du. Aktan bertaratutako datuak, eztabaiden alderdi nagusiak eta hartutako erabakien edukia jasoko dira.

5.Bilkuren aktak egin eta egutegiko 20 eguneko epean bidaliko zaizkie Kontseiluko kideei.

6.Aktak egiten den hurrengo bilkuran onartuko dira, eta idazkaritzak hartutako erabakiei buruzko berariazko ziurtagiriak egin ahal izango ditu, akta horiek geroago onartzearen kalterik gabe.

3. ATALA. Lan batzordeak

15. artikulua.Lan batzordeak.

1.Merkataritza jarduerekin lotura zuzena duten gaiak berariaz aztertzeko, edo Kontseiluaren osoko bilkurak beharrezkotzat jotzen duenean, lan batzordeak eratzeko aukera izango da.

2.Kontseiluaren osoko bilkura erabakiko du horien izena, osaera eta funtzionamendua.

3.Lehendakariak egoki eta beharrezko irizten duen udal teknikarien edo kanpoko teknikarien aholkularitza eskatuko du.

4.Lan batzordeek jorratutako gaien berri emango diote Kontseiluaren osoko bilkurari, eztabaidatu eta onar daitezen.

4. ATALA. Idazkaritza

16. artikulua.Idazkaritza.

1.Kontseiluaren idazkaritza Korporazioaren idazkari orokorraren edo hark izendatutako pertsonaren esku izango da.

2.Idazkaria ez da Kontseiluko eskubide osozko kideztat joko, hura eratzeko quorumari, gehiengoei eta bozketei dagokionez. Kontseilura gonbidatutako gainerako udal teknikariek eta kanpo aholkulariek izaera hori bera izango dute, ondorio horietarako.

17. artikulua.Idazkaritzaren funtzioak

Idazkaritzari dagokio:

a)Bilkuretara joatea.

b)Gai zerrenda egitea.

c)Bilkuren akta jasotzea.

d)Deiak, gai zerrendak eta Kontseiluak sortzen duen dokumentazio oro bidaltzea.

e)Kontseiluaren erabakiak tramitatzea.

f)Jorratuko diren gaien alderdi juridikoei buruzko aholkularitza ematea, beharrezkoak diren laguntza

juridikoa emanez.

g)Kontseiluak egindako jardueren urteko memoria egitea.

h)Idazkari izaerari berez dagozkion gainerako funtzioak bere gain hartzea.

III. KAPITULUA

BESTELAKO XEDAPENAK

18. artikulua.Erregimen ekonomikoa.

Kontseiluko presidentetza arduratuko da kontseiluak behar bezala jarduteko beharrezkoa den euskarri teknikoa eta materiala izateaz. Kontseiluak ez du bere diru hornidurarik, aholkularitza eta kontsulta izaera baitu, eta udalaren ardura izango da behar dituen baliabideak ematea, merkataritzaren ardura duen zinegotzigo delegatuaren bidez.

Aurreko atalean araututakoarekin bat etorriz, Kontseiluaren jarduerak ez dute irabazizko helbururik izango horien kideentzat.

19. artikulua.Kontseiluaren desegitea

Kontseilua udaleko udalbatzaren erabakiz desegingo da, erabaki hori hartzea gomendagarria egiten duten egoeretan.

20. artikulua.Azken xedapena.

Arautegi honek arautzen ez duenerako, honako arau hauetan ezarritakoari jarraituko zaio: Udal Arau Organikoetan; Hiritarren Partaidetzarako Erregelamenduan; Toki Jaurbidearen Oinarriak Arautzen dituen apirilaren 2ko 7/85 Legean; Administrazio Publikoen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidea arautzen duen azaroaren 26ko 30/1992 Legean; eta Toki Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Erregimen Juridikoaren Erregelamenduan. Halaber, arautegi honen xedapenak arau horien argitara interpretatuko dira.